

Sartu 2011 EPE webean. Gomendatzen da Internet Explorer 8 nabigatzailea edo goragokoa erabiltzea.

Idatzi hau nabigazio-barran: <https://ope2011.osakidetza.net>



- (1) Hautatu hizkuntza.
- (2) Sakatu "Kontsulta pertsonalizatuak".
- (3) Hautatu dokumentu-mota, idatzi zure NAN/AIZ eta sakatu "bidali".
- (4) Idatzi zure pasahitza eta sakatu "bidali". Pasahitza gogoratzen ez baduzu, jarraitu argibideei.
- (5) Kategoria bat baino gehiagotan eman baduzu izena, hautatu dagokiona.
- (6) Oposizio-fasea gainditu baduzu, "Lehiaketa-fasea" agertuko zaizu. Sakatu "Ikusi".

<p>1</p>	<p>2</p>
<p>3</p>	<p>4</p>
<p>5</p>	<p>6</p>

(7) Lehiaketa-faseko menuan aukera hauek dituzu:

- Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerkuntza: Kontsulta
Zure curriculumaren laburpena kontsulta daiteke

- Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerkuntza: Txertatu / Aldatu

Zure curriculum osoa kontsulta daiteke, baita prestakuntza akademikoari dagokiona **aldatu** ere. Lehenetsi aukera hau, gehitzea eta curriculuma osatzea ahalbidetzen baitu, hala behar izanez gero.

- Lan-esperientzia: Ikusi
Osakidetzan, eta beste organismo eta entitateetan egindako zerbitzuak kontsulta daitezke.

- Euskera: Ikusi
Osakidetzan egiaztatu eta erregistratutako hizkuntza-eskakizunik altuena kontsulta daiteke.

- Hizkuntzak: Ikusi
Atzerriko hizkuntzei buruzko informazioa kontsulta daiteke.



The screenshot shows the OPE 2011 website interface. At the top right, the OPE 2011 logo is displayed next to the text 'Osakidetzeta-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua'. Below this, the main heading is 'Menua Lehiaketa fasea'. Underneath, there are four categories of options, each with a list of buttons:

- Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza:**
 - Kontsulta
 - Sartu / Aldatu
- Lan-esperientzia:**
 - Ikusi
- Euskera:**
 - Ikusi
- Hizkuntzak:**
 - Ikusi

At the bottom center of the menu area, there is a button labeled 'itzuli'.

7

(8) Sakatu "Curriculum vitaera sartu"

Pantaila aurreko urratsera itzultzen bada, hurrengo atalean deskribatutako urratsera ezin sarturik, hau egin behar duzu:

- 1) lehenengo, berriro sakatu saguarekin "Curriculum vitaera sartu", baina aldi berean zure teklatuaren beheko aldean ezkerrean dagoen kontrol-tekla sakatuta izanik.
- 2) Arazoa konpontzen ez bada, kontsultatu 10. atala.



Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko
Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua

Lehiaketa fasea - Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza: sartu / aldatu

Atal honetan zure curriculum vitae bete ahal izango duzu.

Une honetan badaukagu zure curriculum vitae, data honekin: **2012/05/18** .

Curriculum vitae eguneratu nahi izanez gero, sakatu botoia.

8

(9) CV aplikazioak menu bat du ezkerrean eta beste bat goiko aldean, zure curriculumari buruzko aspektu guztiak kontsultatzea ahalbidetzen dizutenak.

Zure kategoriako oposizio-faseko gaitututakoen zerrenda argitaratu ostean, 10 egun baliouduneko epean, besteak beste, zure curriculum vitae sartu beharko duzu Osakidetzako CV aplikazioan. Horretarako, jarraibide hauek izan beharko dituzu kontuan:

- 1) "Balidatu gabe" egoeran agertzen dena **ez duzu balidatu beharko prozesuaren fase honetan**.
- 2) CV aplikazioan ezin duzu lanbide-esperientziarik zuzenean gehitu.
- 3) Osakidetzatik kanpo egindako zerbitzuak gehitu nahi badituzu, berauek egiaztatzen dituen jatorrizko dokumentua aurkeztu beharko duzu epe honen barruan.
- 4) Ados ez bazaude Osakidetzan egindako zerbitzuekin, eredu-inprimakian adierazi beharko duzu, eta erreklamazioa epe honen barruan aurkeztu.
- 5) Gogoratu 2011ko EPERako puntuagarria den lanbide-esperientzia kategorian izena emateko eskabidea egiteko azken egunera artekoa dela. Ez erreklamatu egun horren osteko zerbitzurik.
- 6) CV aplikazioan ezin da hizkuntza-eskakizunik zuzenean sartu.
- 7) Hizkuntza-eskakizun bat egiaztatu nahi baduzu, kopia sinplea entregatu beharko duzu epe honen barruan, Osakidetzak egiazta dezan. Kopia konpultsatua izango da, apirilaren 3ko 47/2012 DEKRETUAREN arabera emandako ziurtagiriak direnean, hau da, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko den Dekretu honen arabera.
- 8) Zure curriculumean agertzen diren hizkuntza eskakizun guztiak autentifikatuta daude eta, beraz, balidatuta.
- 9) IT txartelak ezin dituzu zuk sartu. Aplikazioan agertzen direnak ESik balidatu ditu. Baten bat falta dela ohartzen bazara, aurkeztu kopia sinplea epe honen barruan.
- 10) Gainerako atalei dagozkien merituen erantsi behar dituzu, epe honen barruan: prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutza zabaltzea, ikerkuntza eta bestelako merituen. Egiten ez baduzu, ez zaizu horiei legokiekien puntuaziorik emango.
- 11) Gogoratu atzerriko hizkuntzak bakarrik direla puntuagarriak zenbait kategoriatan, kategoriako oinarri espezifikoen arabera: fakultatiboen taldea (A1).
- 12) Gogoratu gehitzen duzuna "balidatu gabe" egoeran geratuko dela, eta **ez dela balidatu behar prozesuaren une honetan**.

GARRANTZITSUA: barematu ahal izateko, zure curriculumare erregistratu behar duzu aplikazio honetan, jarritako epearen barruan, oposizio-fasea gaitutu dutenen zerrenda argitaratu ondoren. Gainera, hala egiten ez baduzu, baztertuta gera zaitezke.

Osakidetza
SALIR

DATOS PERSONALES
EXPERIENCIA PROFESIONAL
FORMACIÓN
DOCENCIA Y DIFUSIÓN DEL CONOCIMIENTO
INVESTIGACIÓN
OTROS MÉRITOS



FORMACIÓN

- [: Titulación Académica](#)
- [: Titulación Postgrado](#)
- [: Formación continua](#)
- [: Euskera](#)
- [: Certificaciones It-Txartela](#)
- [: Idiomas](#)

Usuario:

IMPRIMIR
[AYUDA](#)

	F. Obtención	Nivel Académico	Título	Especialidad	Estado
<input type="checkbox"/>	15/07/1996	Licenciado U...	Medicina	Medicina Fam...	Validado

Ver
Modificar
Eliminar
Añadir

* Los registros Validados, Rechazados o En Validación no pueden ser modificados ni eliminados por el usuario

Titulazio akademikoa:

GARRANTZITSUA: Behar bezala bete behar duzu atal hau; bestela, baztertuta gera zaitezke.

Arreta jarri titulazio akademiko ezberdinei, eta hautatu zureari dagokion aukera.

Ez ahaztu espezialitatea behar bezala adieraztea, batez ere aurkezten zaren kategoriarako ezinbesteko baldintza bada.

Arreta berezia jarri titulazio akademikoa eta, hala behar izanez gero, espezialitatea ateratako data erregistratzean. Kontuan hartu, data hau kategorian izena emateko eskabideak aurkezteko azken egunaren ostekoa izanez gero, baztertuta geratuko zarela eta azterketan ateratako notak ez duela eraginik izango. Gauza bera gertatuko da zure titulazioa egiaztatzen ez baduzu, edo kategoriara sartzeko behar dena ez eta bestelako bat egiaztatzen baduzu.

Urrats hauek guztiak bete behar dira zure titulazio akademiko egiaztatzeko.

* Nivel académico:	Técnico
* ? Denominación Título:	SANIDAD
* ? Universidad/Centro:	Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea
* Fecha de Expedición:	30/06/2011 (dd/mm/aaaa)
? Especialidad:	Cuidados Auxiliares de Enfermería
* País:	Seleccione Especialidad
Provincia:	Auxiliar de Psiquiatría
Ciudad:	Cuidados Auxiliares de Enfermería
Universidad/Centro:	Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea
Fecha Obtención:	30/06/2011 (dd/mm/aaaa)
Observaciones: (máx. 1500 caracteres)	
Estado:	No validado

* Datos mínimos requeridos para guardar el registro y continuar posteriormente su cumplimentación.

[Atrás](#) [Guardar](#)

Espediente akademikoa (bikain-notak eta ohorezko matrikulak)

CV aplikazioan gehitu beharko duzu, epe honen barruan, atal honetan:

- Prestakuntza – Titulazio Akademikoa -> Gehitu eta ohar-atala bete, hurrengo irudian erakusten den moduan:
- Gainera, beti entregatu beharko da espediente akademikoa horren kopia sinplea, betekizun eta merituek egiaztatzeko Dokumentuarekin batera.

Kontuan hartu, titulazioa aurretik mekanizatu eta balidatu baldin bada, ezingo duzula aplikazioan aldatu, baina derrigorrez aurkeztu beharko duzula espediente akademikoa.


* Nivel académico:	Licenciado Universitario
* ? Denominación Título:	Medicina
* ? Universidad/Centro:	Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea
* Fecha de Expedición:	30/06/2004 (dd/mm/aaaa)
* ? Especialidad:	Medicina Familiar y Comunitaria
* ? Forma de obtención:	Fomación en Residencia (MIR,FIR,PIR,QIR,BIR)
* País:	España
Provincia:	Gipuzkoa
Ciudad:	Donostia
Hospital/Centro:	Hospital Universitario Donostia
* Fecha Obtención:	30/06/2009 (dd/mm/aaaa)
Observaciones: (máx. 1500 caracteres)	Número de sobresalientes: 8 En las siguientes asignaturas: ...
Estado:	No validado

* Datos mínimos requeridos para guardar el registro y continuar posteriormente su cumplimentación.

[Atrás](#) [Guardar](#)

Gidabaimena eta BTP baimena.

- Betekizun hau soilik da beharrezkoa parte hartzen baduzu FEM Etxeko Ospitalizazioan edo ofizial gidari kategorian.
- Atal honetan erregistratu beharko duzu:
 - o "Bestelako merituak" -> "Meritu osagarriak"
 - o eta baimen-mota eta azken berritze-data adierazi



Osakidetza [] SALIR X

DATOS PERSONALES EXPERIENCIA PROFESIONAL FORMACIÓN DOCENCIA Y DIFUSIÓN DEL CONOCIMIENTO INVESTIGACIÓN OTROS MÉRITOS

Usuario: []

IMPRIMIR AYUDA

OTROS MÉRITOS

- :Comités internos
- :Comités y Asociaciones Externas
- :Méritos Adicionales**
- :Tribunales y Otros Órganos
- :Grupos de trabajo de Osakidetza

Instrucciones generales
Glosario
LOPD

* ? Descripción del mérito: CARNÉ B

* Fecha: 02/11/1999 (dd/mm/aaaa)

Lugar: DONOSTIA


Observaciones: (máx. 1500 caracteres) Validez hasta 01/11/2019

* Datos mínimos requeridos para guardar el registro y continuar posteriormente su cumplimentación.

Atrás Guardar

10.- "Curriculum vitae-ra sartu" sakatzean, ezin bazara aplikaziora sartu, izan daiteke zure ordenagailuaren konfigurazioak sarbidea blokeatzen duelako. Hori saihesteko, egin bi urrats hauek:

- 1) Zure nabigatzailearen goiko aldean, sakatu "Tresnak" eta, jarraian, "Elementu emergenteen blokeatzailea". "Desaktibatu elementu emergenteen blokeatzailea" aukera agertzen bada, sakatu bertan.



- 2) Google barra instalatuta badaukazu (ikusi irudia), sakatu "Konfigurazioa" eta gero "Aukerak". "Google barraren aukerak" leihoa irekiko da. Sakatu "Gehiago" erlaitza eta egiaztatu "Gaitu pop-up blokeatzailea" aukeraren ondoko laukia ez dagoela markatuta. Markatuta badago, ondoko irudian bezala, desmarkatu.

